

webguneak  DATU IGORLEAK

Streaming-a

Andoni Sagarna • Plazagunea

datuak igortzeko ur-lasterra

Etengabe landu behar diren datuak igortzeko teknika bat da streaming-a; datuak ur-laster baten antzera mugia-

Andoni Sagarna • Plazagunea

Etengabe landu behar diren datuak igortzeko teknika bat da streaming-a; datuak ur-laster baten antzera mugiarazten dituen sistema. Streaming teknologiek garrantzi handia hartu dute Internet bidez multimedia fitxategiak ikusi ahal izateko. Nahiz eta erabiltzaileak ez eduki oso konexio lasterra, musika entzun edota bideoak ikus ditzake, datu guztiak iritsi gabe ere, etorri ahala eskaintzen dizkiolako sistemak.

Konexio ona izanez gero, pantailan azaldu daitezkeen baino lasterrago iritsiko zaizkio datuak, eta buffer edo gordailu batean metatuko dira hauek, harik eta azaltzea dagokien arte. Baina konexioa kaskarra baldin bada, erabiltzaileak

ezin izango ditu fitxategiak gozo eta jarraian entzun edo ikusi, geldialdi gogaikarriak tarteka nozituko ditu.

Bideoa streaming bidez banda-zabaleraz mugatutako lineatan zehar transmititu ahal izateko, biziki ongi konprimitu behar dira datuak. Telebista bereizmen osoz igortzeak segunduko 30 MB datu igortzea esan nahi du. Bistan da 28,8kko modema daukan erabiltzaileak datu-uholde hori nekez jaso lezakeela behar bezala. Arazoa konpontzeko bide bat irudiaren tamaina txikitzean datza.

Horregatik, normalean, Internet bidez transmititzen duten telebista-kanalek irudi txikitxoak eskaintzen dituzte. Beste zerbait ere sakrifika daiteke, segundoko ikusten den «fotograma» kopurua, hain zuzen ere. Horrela jokatuz gero, mugimenduen naturaltasuna galtzen joango gara, antzinako filmetan gertatzen zenaren antzera.

Hori dena eginda, segundoko transmititu beharreko datu kopurua 30MB-etik 500kB-era jaits daiteke. Hala ere, 28.8k-ko modema duen ikusleak ondo

ikusiko badu, 2,5kB/s-ra lortu behar dugu jaistea. Hori konpresio algoritmoek egin behar dute, berririo ere zerbait sakrifikatuz. Sistema bakoitzak bere erara egiten du hau.

Ariketa zaila da, beraz, bideoa Internet bidez zuzenean eskaintzea, baina egingarria da. ADSL eta kable bidezko konexioak hedatu ahala, buruhausteak txikiagoak izango dira, edo hobeto esanda, beste maila batekoak, zeren eta orduan ez baikara konforme izango gaur txukun samarra iruditzen zaigun kalitatearekin.

Internet bidezko telebista Euskal Herrian

Ohiko telebista lurreko antena errepikatzaileen bidez heltzen zaigu. Seinaleak garraiatzeko beste era batzuk satellite bidezkoa eta kable bidezkoa dira. Bada ordea beste bat hain ezaguna ez dena: Internet bidezkoa, alegia. Badira telebistakanal batzuk ohiko sistemak erabiltzeaz gain Internet bidez ere hedatzen dituztenak beren emankizunak, eta badira beste batzuk Internetere soilik baliatzen dutenak.

ETBren ETBSat programazioa, adibidez, zuzenean ikus daiteke <http://www.eitb.com/media/etbsat.asp> helbidean elektronikoa.

Bada beste kanal bat Euskal Herrian, <http://www.proyeccion.tv/> helbidean, albisteak, hitzaldiak, erakusketak edo enpresa eta erakundeen aurkezpenak Internet bidez soilik igortzen dituen. Oraintxe urtebete hasi zen lanean eta dagoeneko 1.000 programazio-ordu inguru aritu da

igortzen. Egunero 1.100 bisita izaten ditu. Ikusle dezente Euskal Herrian ezezaguna den telebiste eredu batentzat.

Iparralden berriz badira hiru kate:

Baionakoa

<http://www.baiona.tv>

Angelukoa

<http://www.anglet-webtv.com>

TVPI Pays Basque

<http://www.tvpi.fr>


Aurreratuago dabilta Iparralden.



Fermin Muguruzaren bideoklipa TVPI
Pays Basque-n



Proyección TV
<http://www.proyeccion.tv/>



Baionako telebista
<http://www.baiona.tv/>



Angeluko telebista
<http://www.anglet-webtv.com>



TVPI Pays Basque
<http://www.tvpi.fr/>

info

Eskatu ahala inprimatzen diren egunkariak

PEPCWorldwide izeneko Herbeheretako enpresak egunkari-kiosko bat garatu du, hainbat egunkariren azken edizioa bezeroak eskatu ahalaz inprimatzen duena. Kiosko horiek bidaiari asko ibiltzen diren lekuetan jartzen dira, hala nola hoteletan, aireportuetako itxarongeletan edo kongresu-jau-regietan. Valentziako Melia ho-

telak, esate baterako, badu
Presspoint deritzen kiosko
horietako bat.

Euren herrialdeetatik urrun dauden irakurleek eros dezakete eguneko egunkaria kiosko hauetan, pare bat minututan inprimatu ostean. Handik irteten diren egunkariak normalak bezalakoxeak dira taimainaz, edukiz eta maketa-



PEPCWorldwide
http://www.pepcworldwide.com

ziaz. AEBetan bidaiatzen ari den europar batek bere etxean balego baino 5 edo 8 ordu lehenago eskura dezake bere herrialdeko egunkari. Edizioa inprimatzeko prest dagoen bezain laster eskuragarri baitago kiosko bitxiotan.

Hori lortu ahal izateko, sistema honetan eskuhartzen duten egunkariak Internet bidez bidaltzen dituzte euren edizioak Herbehereetan dagoen PEPC punta-puntako kontrol-zentrora. Handik mundu osoa

ailega daitekeen satellite-sare
batera igortzen dira eta mun-
duan zehar banaturiko kioscoe-
tara joaten gero. Kioskook zen-
tralarekin konektatuta daude,
Internet bidez ordainketak
kudeatzeko.

Une honetan 28 hizkuntzatan dauden 47 herrialdetako 112 egunkari banatzen dira 100 kiosko ingurutan. Espainiako Marca, Expansión eta El País edota Frantziako Le Figaro eta Le Monde eros daitezke leku hauetan.